



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2013/0382 DEKRETU

Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua (36/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, aldatuta) jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk euskal autonomia erkidegoaren eremuan ezartzen ditu.

Dekretu honen bidez, 12. Artikuluan, hain zuzen ere, ahalmena ematen zaio Udalari ordutegi bereziak ezartzeko, berak edo Autonomia Erkidegoko organo eskudunak jaitzat hartutako edo interes turistikoa dutela iriztitako beste gertakizun batzuk ospatzeko data zehatzetan, hala nola ospakizun publikoak, auzoko jaiak, gertakari sozialak, azokak, lehiaketak, erakusketak edo antzeko beste batzuk. Egun hauetan, udalak ordutegi orokorra luzatu ahalko du gehienez bi orduz, urte natural bakoitzeko hamabost eguneko gehienezko muga dagoela, aurreikus ez daitezkeen ezohiko inguruabarren arabera eta aurreko paragrafoan aurreikusitako gertaeren izaera bereko gertaerei loturik.

Ikusirik 2013ko apirilaren 16an Ondarroako II. Legatz-eguna antolatuko dela eta udalarentzako ospakizun hau interes turistikoa duela,

Alkateak, 296/1997 Dekretuaren 12.3 artikulua arabera dituen ahalmenak erabiliz, erabaki du:

Lehen.- Onartzea, 2013ko apirilaren 20an, Ondarroako II. Legatz-eguna dela eta, ostalaritzako ordutegi orokorra ordu eta erdi luzatzea. Beraz, egun horretarako **baimendutako ixteko ordutegia** honela gelditzen da:

- Bigarren taldekoak (tabernak, ardandegiak, edalekuak, kafetegi-tabernak, snack-ak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta antzekoak)..... **4:00etan**
- Hirugarren taldekoak(taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, bar amerikarrak, pubak, disko-barrak, karaokeak eta antzekoak) **5:30etan**
- Laugarren taldekoak (dantzalekuak, dantza-aretoak, diskotekak, kafe-teatroak, ikuskizunak dituzten jatetxeak eta antzekoak) **7:30etan**

Bigarrena.- Erabaki honen berri dagozkion ondorioetarako, herritarrei zabaltzea eta Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari jakinaraztea.

Ondarroa, 2013ko apirilaren 16an.

Alkatea

Argia Ituarte Arkotxa

